

# COLABORABORA KOOP (NOSOTRAS SOMOS SOLO UNO DE LOS MUCHOS AGENTES IMPLICADOS EN ESTE PROYECTO):

## Kurba Balaztatu



Ricardo Antón Troyas  
ricardo@colaborabora.org  
659 964 873  
<https://frenalacurva.net/>



**Jarduera:** ZER direlakoak berriro definitu NOLA direlakoak eraldatuz. Berrikuntza sozial, estrategiko eta antolakuntzakora bideratutako prozesu, ingurune eta zerbitzu kolaboratzaileak diseinatu eta ahalbidetzen dituzte, erdigunean ipinita pertsonak, habitatak eta elkarrekin bizitzeko sistemak.



**Sektorea:** Diseinua



**Enplegatutako pertsonen kopurua:** 6



**Lokalizazioa:** Plaza de la Cantera, 5 - 2º, 48003 , Bilbao - Bilbo, Bizkaia

## NAZIOARTE mailako berrikuntza ERRADIKALA

### Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?

Lankidetzaren horizontala, banatu eta eragile anitzekoaren garrantzia frogatzen duen kasua delako, helize boskoitzaren ikuspegi berritzailetik: administrazio publikoa, unibertsitatea eta ikerketa-zentroak, enpresak, eragile sozialak (hirugarren sektorea eta herritarrak barne) eta, bosgarren elementu gisa, lurraldea.

Tokiko arrakasta arrakasta globalarekin batzen du, proiektuen eskalatzeko eta transferentziaren balioa azpimarratzeko, kode irekiaren eta prototipoen logikei jarraikiz lan eginda.

### KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

ColaBoraBora ekimen sozialeko kooperatiba bat da, eta abian dago 2001az geroztik; bertan, lankidetzaren oinarria duten eta komunitateekiko garapen eta lanera bideratuta dauden proiektuak babestu eta diseinatzen dituzte, berrikuntza sozialerako, estrategikorako eta antolakuntzarako. Horrela, batez ere pertsonengana bideratutako berrikuntza-ingurune eta prozesuak erraztea da helburua nagusia.

Hori lortzeko, bokazio publikoko erakunde pribatu gisa artikulatzen dira, pertsona egonezin eta ikusnahien talde batek osatua, beste pertsona askorekin konektatuta. Izan ere, konexio horiei esker (kasu honetan Aragoiko Gobernuko zuzendarietako batekiko harremana) Frena La Curva ekimenean parte-hartzea hasi zen.

Frena La Curva berrikuntza irekiko herritarren plataforma da, eta elkarrekin lotutako ekintza multzo baten oinarria da, non hainbat eragile lankidetzan aritzen diren COVID-19aren pandemiaren aurrean erresilientzia zibikoa sustatzeko eta gizarte zibilak erantzun bat emateko, gobernuarekin eta zerbitzu publikoekin batera. Hilabete batean garatu zen proiektua da, Aragón Abierto laborategiaren ekimenez, birusaren aurrerapenarekiko proportzionala izango zela aurreikusi zen elkartasun-olatu bideratzeko eta maximizatzeko tresna bat izateko beharra hauteman ondoren.

Pandemiaren ziurgabetasun-egoeraren eta eragin negatiboaren ondorioz, helburua zen berrikuntza sozialeko ekimenak identifikatzea eta hainbat eragileren arteko lankidetzaren ahalbidetzea, elkarrekin birusaren kurba gelditzeko eta elkarrenganako babesean oinarrituta konfinamendua gainditzeko.

Horretarako, ekimena sareko lankidetzaren eredu horizontalean oinarritu da, eta hasiera batean lehenagotik existitzen ziren konfiantza-harremanetatik abiatuta artikulatu zen, zeinak azkar hedatu ziren larrialdi-egoeraren eraginez. Guztira 300 pertsonak baino gehiagok, helize boskoitzaren logikan oinarrituta, hainbat taldetan lan egin zuten kanal digitalen bidez. Gainera, lankidetzaren proiektu honen alderdi interesgarri eta berritzailea honako hau da: "guztiona da, baina inorena izan gabe".

Behin esperientzia amaitu ondoren, asmoa da lortutako arrakasta erabiltzea frogak kasu gisa, eta horrek aukera ematea eskala-jauzi bat emateko mota horretako proiektuetan, noizean behingo esperientziak izateko jarduketaren ildo eta politika publiko egituratuagoetara igaroz, baliabide gehiagorekin, irismena eta eragina handitu ahal izateko. Alde horretatik, Frena La Curva HIP Metodologiaren (Berrikuntza Publikorako Hexagonoa) hazia izan zen, sei sektore osagarritan (CO, OPEN, TRANS, PROTO, TEC, FAST) oinarrituta ikasi eta eraldatu nahi duten erakundeei zuzendua (<https://modelohip.net/>).

### Aurrekariak

"Frena la curva" 2020ko martxoaren 12an sortu zen, konfinamenduaren aurretik, eta Aragoiko Gobernuak sustatu zuen. Hasieratik lankidetzaren oinarritutako ekimena izan da, non mota guztietako eragileak batu diren, herritarren berrikuntzan lan egiten dutenak (horien artean ColaBoraBora), nagusiki estatukoak eta aurrerago Latinoamerikakoak: besteak beste enpresak, herritar aktiboak, herritarren laborategiak, GKEak, etab.

### Erronka

Pandemia-egoeratik eratorritako gainezkatzearen eta nahasmenaren aurrean, ekimena bera erronka bat izan zen. Proiektu bat abian jarri behar izan zen ahalik eta denbora-epe motzengatik eta eskuragarri zeuden eragileen ahalik eta babes handienarekin, hainbat gizarte-ekintza identifikatu eta garatzeko eta mundu-mailako osasun-krisiaren egoera gainditzeko.

Bestalde, gaur egun bizirik jarraitzen duen erronkak modu bat topatu nahi du ekimena denboran zehar mantentzeko, eta, horretarako, gai zian behar dugu lanean jarraitu hala izateko zeri eutsi behar zaion hautemateko.

### Ekintzak

1. Proiektu-proposamena abiaraztea eta harremanetan jartzea hainbat eragileekin, hura gauzatu ahal izateko (Aragoiko Gobernuak).
2. Plataformaren prototipoa abian jartzea pandemiaren barruan hainbat kasuri erantzuteko ekimenen zerrenda batekin batera.
3. Plataforma abian zela, hainbat lantalde sortu ziren, eta horri esker sare sortu zen, elkarrekin lanaren eta babesaren bidez.
4. Latinoamerikarekiko konexioaren hasiera, proiektuaren dimentsioa handitzeko eta lankidetzaren sustatzeko.
5. Maparen garapena, hau da, zerbitzu geolokalizatu bat, bizilagunen elkarrekin laguntza sustatzeko, non beharrak eta ekimenak

txintxeten bidez ikusarazten diren.

6. Aurrera jarraitzeko tresnak, foroak, prestakuntzak eta ekimenak sortzea. Abian jarri ziren hainbat ekintza zehatz, hautemandako behar puntual eta premiazkoenei erantzuteko. Gainera, hackatoi izenekoak egin ziren konfinamenduari buruzko proiektuak sortzeko (maskarak nola egin, adibidez), baita erronka komunak ere.

7. 2020ko maiatzaren 2an, Frena la Curva jaialdia egin zen. 12 ordu iraun zituen, eta hitzaldiak, tailerrak, eztabaidak, kontzertuak, eta abar antolatu ziren, pandemiaren aurka bat egiteko eta mundu berri bat irudikatzeko helburuarekin.

## Lortutako emaitzak

- 24 ordutan abian jarri zen berrikuntza irekiko plataforma bat, eta lehen egunetan 900 erreferentzia eta 100.000 bisita baino gehiago jaso ziren. Horri esker, konfinamenduan zehar gaztelaniazko erreferentziako webgune nagusietako bat bihurtu zen.

- Mapa geolokalizatu bat garatzea, proiektua tokiko ingurunearekin lotzen laguntzen duena, 10.000 "txintxeta" ingururekin, laguntza eskaini eta eskatzeko. Katastrofeei aurre egiteko software askeko plataformaren aplikazio handiena da (Ushahidi, Kenyako).

- Ekimena 22 herrialdetan errepikatzea, nagusiki Latinoamerikan.

- 300 pertsona baino gehiagoren esku-hartzea hainbat lantaldeetan eta nazioarteko koordinaziotan, nagusiki Telegram eta Jitsi bidez.

- Bi hackatoi egitea, non 63 proiektu sustatu ziren mundu osoko 1.000 profesional eta aktibista baino gehiagoren parte-hartze zuzenarekin (proiektu horietako asko abian daude oraindik).

- "Colaboratorio ¿Y si nos enredamos?" ekitaldia, zeinak 150 pertsona baino gehiago bildu zituen herritarren berrikuntza-ekosistemaren artikulazioa lantzeko (prozesua abian dago oraindik).

- Espainian bakarrik, 500.000 erabiltzaile baino gehiago plataforman.

- Frena La Curva jaialdiaren ekoizpena, zeinari esker egindako lana hedatu egin zen; 14.000 bisita baino gehiago izan zituen zuzeneko emanaldian zehar.

- Erreferentziak: EB, ELGA, NBGP, OGP, BID, SEGIB...

---

## KASUAREN KATEGORIZAZIOA

---

### Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Software-a.
- Prozesua: Berrikuntzaren Kudeaketa.

### Aukera arloak:

- 1 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa

**Ricardo Antón Troyas (Esploratzailea)**

“Egia esanda, zirrargarria eta oso emankorra izan zen. Ideia asko, kezka asko, pertsona eta erakunde asko modu aktiboan, eta aspalditik datozen lan asko jarri ziren mahai gainean, eta nahastu ondoren esanahia gehitu zuten”.

**Ricardo Antón Troyas (Esploratzailea)**

“Egungo erronka konplexuei erantzuteko, sektore eta eragile anitzeko berrikuntza behar dugu, diziplina-ezagutza aditua, esperientzia eta bizipenak batuko dituen. Ikuspuntu zabal eta zeharkakoa duen berrikuntza”.

**Innovation Index Score: ★★★★★**

Lerrotatze estrategikoa: ★★★★★☆

Kreatibitatea: ★★★★★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★★

Sistematizazioa: ★★☆☆★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★★

★

Eragina: ★★☆☆★

Aintzatespena: ★★★★★★